

Bizitza arazo amankomun bat denaren aurrentipena dut

nire arazoan bitartez soilik dakit bizitzen, ordea
nire zilborra begiratu
iraunkor denatik ihesi
hutsa moztortuz
begiraten nauzunean, zeure begi estutuak sahiestuz

Konpromezu bat hartzea larrua uztea denaren aurrentipena dut

nire arreta hamaika proiektutan sakabanatzen dut, ordea
intentsitateak konsumitzeko
agendan kontaktuak bildumatzeko
garaipen edo porrot gabeko prozesuak hasteko beharrean naiz
azken finean, mediokritatearekin, exijentzirik gabe,
nire gertukoekin ongi sentitzearekin kontent naiz

Atzerapausorik ez dagoenaren aurrentipena dut

ezezagunak, agian gustoko ez ditudanen
esku arrotzetan bizi den gorputz bat naizela
inplikaturik nagoela
pozoiturik nagoela
sumatzen dut
nire patua zeurea ere badela
eta nire mundua neurea ez dela

Ordua iritsi denaren aurrentipena dut

neure konpromezua konprometitzeko
neure hitzetan sinesteko ordua
iraunaraziz nire begirada
zeurean eusteko ordua

Beldur naizenaren aurrentipena dut
denbora daukadanaren aurrentipena dut
artean
neure pozoina zeure zainetan inokulatzeko
berriro ere elkarrekin eldarnioan
neure mundua
mundu amankomun bat izan dadin